

1.taula. Sendagai antikolinergikoak, potentziaren arabera. Gomendioak eta adineko pertsonentzako ordezeko tratamendu aukerak. [2019ko INFACean oinarritua eta 2024an eguneratua.](#)

Potentzia antikolinergiko HANDIA	Potentzia antikolinergiko TXIKIA	Oharra eta ordezeko tratamendu aukerak
Oharra: erabilitako dosiak karga antikolinergiko globalean eragina du, farmako bakoitzaren potentzia antikolinergikoaz gain. Dosia murrizteak karga antikolinergiko globala jaitea ekar dezake.		
Antikolinergiko antiespasmodikoak		
atropina butileskopolamina otilonioa*		- Zalantzazko eraginkortasuna. - Mebeverinak eta pinaberioak ez dute jarduera antikolinergiko esanguratsurik.
Gernu-antimuskarinikoak		
desfesoterodina fesoterodina flaboxatoa oxibutinina propiberina solifenazina tolterodina trospio kloruroa		- Saihestu edo preskripzioa bukatu. - Eraginkortasun mugatua, garrantzi kliniko eskasa. Egiaztatu eraginkorra dela, eta hala ez bada, eten tratamendua (ez da beharrezkoa gradualki kentzea). - Aztertu farmakologikoak ez diren terapiak (kontsultatu infac maskuri hiperaktiboa). - Mirabegron: antikolinergikorik ez erabiltzeko aukera bat. Hala ere, eraginkortasun mugatua du eta arteria-presioa areagotzen du.
Antidepresiboak		
amitriptilina klomipramina doxepina imipramina nortriptilina paroxetina# trimipramina	zitaloprama eszitaloprama fluoxetina fluboxamina maprotilina mirtazapina	- Ekidin antidepresibo triziklikoak; nortriptilina: jarduera antikolinergiko txikiagoa. - SBISen artean, sertralina da aukerarik onena, eta paroxetinak jarduera antikolinergiko handiagoa dauka. - Trazodona#: onargarria, baina eskala batzuen arabera potentzia antikolinergiko txikia dauka. - Benlafaxina eta duloxetina: jarduera antikolinergiko eskasa.
Antipsikotikoak		
klorpromazina klozapina flufenazina levomepromazina olanzapina# perfenazina# periziazina ketiapina#	klotiapina* haloperidola paliperidona# pimozida risperidona zuclopentixola#	- Antipsikotiko atipikoetan eta tipikoetan antzekoa da eroriko-arriskua. - Olanzapina# izan daiteke atipikoen artean potentzia antikolinergikorik handienekoa. - Aripiprazola#: jarduera antikolinergiko txikiagoa du. - Beste antipsikotiko batzuk ez dira zerrendan sartu, baina jarduera antikolinergikoa izan dezakete, kontsultatutako iturri desberdinen arabera.
Antiparkinsonianoak		
biperidenoa trihexifenidiloa	amantadina bromokriptina	- Entakapona#: jarduera antikolinergiko eskasa. - Pramipexola, ropirinola, selegilina, rasagilina eta kabergolina: ez dute jarduera antikolinergiko esanguratsurik.
Antihistaminikoak		
1. belaunaldia: ziproheptadina klorfenamina difenhidramina dimenhidrinatoa dexklorfeniramina doxilamina (<i>Dormidina</i> [®] , <i>Soñodor</i> [®]) hidroxizina meklozina	2. belaunaldia: alimemazina zetirizina	- Ekidin 1. belaunaldiko antihistaminikoak. Ez da beharrezkoa gradualki kentzea. - Alergia-sintomak: tratamendu lokalak eta aukera ez farmakologikoak kontuan hartu. - Loratadina#: onargarria, baina eskala batzuen arabera jarduera antikolinergiko txikia dauka. - Ebastina, fexofenadina: ez du jarduera antikolinergiko esanguratsurik.

Potentzia antikolinergiko HANDIA	Potentzia antikolinergiko TXIKIA	Oharra eta ordezeko tratamendu aukerak
Erlaxatzaile muskularrak		
ziclobenzaprina, tizanidina	baklofenoa metokarbamola	
Opioideak		
	kodeina fentaniloa morfina oxikodona petidina tramadola	- Gradualki kendu behar dira. - Parazetamola eta AINE: ez dute jardura antikolinergiko esanguratsurik. - Opioideen artean, buprenorfinak eta hidromorfonak, baliteke jardura antikolinergikorik ez izatea.
Bentzodiazepinak		
	klonazepama klordiazepoxidoa# diazepama	- Ahal den heinean, ekidin erdibizitza luzekoak. - Beste BZD batzuek ere jardura antikolinergikoa izan dezakete, kontsultatutako eskaletako baten arabera
Antikolinergiko inhalatuak &		
aklidinioa glikopirronioa ipratropioa tiotropioa umeklidinioa		- Efektu antikolinergiko lokalak batez ere (aho lehorra, adibidez)
Antikolinergiko oftalmikoak &		
atropina ziclopentolatoa tropikamida		- Efektu lokalak, batez ere
Beste batzuk		
dizikloberina (<i>Colchimax®</i> : <i>colchicina+dicloberina</i>) disopiramida	karbamazepina litioa loperamida metoklopramida# oxkarbamazepina teofilina	

* Ez dago iturrietan. Parekotasun farmakologikoaren arabera edo fitxa teknikoaren informazioari jarraikiz sartzen dira.

Informazioa kontrajarria ematen dute kontsultatutako iturriek.

& Presbiden karga antikolinergikoa baliozkotzea: antikolinergiko inhalatuak eta oftalmikoak baztertzen dira.

Ez da zerrenda zehatza, eta aldi-aldi eguneratu behar da.

Eguneratze data: 2024/10/23

Eguneratzean kontsultatutako bibliografia eta eskalak

- INFAC 2019. [Karga antikolinergikoa: nola arindu daiteke?](#)
- Kiesel EK, Hopf YM, Drey M. [An anticholinergic burden score for German prescribers: Score development](#). BMC Geriatrics. 2018;18:239.
- Chronic-Pharma. [ABC calculator](#)
- Anticholinergic Burden. [ACB calculator](#)
- Aginig brain program: ACB Scale: [Anticholinergic Cognitive Burden Scale 2012 Update](#). 2012.
- Duran CE, Azermai M, Vander Stichele RH. [Systematic review of anticholinergic risk scales in older adults](#). Eur J Clin Pharmacol. 2013;69(7):1485–96.
- [The Maudsley® Prescribing Guidelines in Psychiatry](#). 2021
- UpToDate. [Second-generation and other antipsychotic medications: Pharmacology, administration, and side effects](#)
- UpToDate. [Drug prescribing for older adults](#)
- CIMA AEMPS: [Fichas técnicas](#)

